

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

362

Abenduak 1, 2019



3 Euskararen eguna

4 Erreportajea: Colon ibilbidea

5 Be Veggie

6 Leka Enea 100 urte

8 Kirolak: Bidasoa-Irun

9 Kirolak: Gabonetako krosa

12 Irunabar / Denborapasak

13 Beti Gazte: Eneritz Furyak

14 Gazte Informazioa

15 Agenda



irunero.eus

TXINGUDI

ESKUBALOI

txingudieskubaloia@gmail.com

www.txingudieskubaloia.eus

722 801 233

Zer gertatu zen Irunen orain dela 100 urte?

1919. urteko abenduaren 7an argitaratutako "El Bidasoa" aldizkariaren 223. zenbakian hiriaren gaurkotasuna errepatatzen da, iraganeko kontuak gogoratzeaz gainera. Lehen artikuluan alkatearen ordutegiak eta udaletxearen funtzionamenduaz hitz egiten duen idatzia irakur daiteke. "Anotaciones de un Chismoso" atalak, berriz, hiriko familiek azkenaldian botak erabiltzeko ohituraren inguruan hitz egiten du. Hurrengo artikulua iraganean hirian izandako leku eta ohiturak gogoratzen ditu, horietako asko desagertu direla esanez. Aldizkariaren zenbaki honetan ere, Mendibil auzoko segurtasun falta salatzen da berriro ere, kasu honetan, auzoko etxe batean izandako lapurketa baten harira.

Encarnak sinatutako hiritarra Madrilerara bizitzera mugitu eta Irungo bizitza faltan botatzen duela onartzen duen gutuna argitaratzen da "El Bidasoa" aldizkariaren zenbaki honen barnean. "Alfilerazos" izenburuarekin albiste labur batzuk biltzen dira, Colon pasealekuak behar dituen berrikuntzak salatu, azkenaldiak ustez Ongintza Jaialdiak antolatzeke beharrik ez dagoela ohartarazi eta hiriko taberna eta jatetxeen sarrera ekonomikoak handitzeko jai baten antolaketa proposatzen direlarik lerro horietan. Kirol kronikan, aldiz, futbol selekzioko hurrengo partiduen berri ematen da, abenduaren 25ean Amuten Real Union eta Paris Racing klubaren artean jokatuko den partidua hitz egiteaz gainera.

Aldizkariaren zenbaki honetan Juaristi doktorearentzako omenaldia antolatzeke diru-ekarpenen zerrenda gaurkotua argitaratzen da, antolatutako ekintzen berri eman eta eskerrak emateko gutun bat publikatzearekin batera. Hiriko gaiekin loturiko txiste zerrenda topatuko dute irakurleek "El Bidasoa" aldizkariaren 223. zenbakian ere. "En el municipio" atalean udal bilkurak azken erabakiak laburbiltzen dira, ondoren, antzokien programazioa argitaratu eta 1883 urtean aldizkari honetan bertan argitaratutako albisteak gogora ekartzeaz gainera. Azkenik, albiste laburren zerrenda baten ostean, publizitaterako erreserbatutako azken orrialdeari tartea uzten zaio.

- G48948: San Juan Harria plaza 1908 eta 1919 urteen artean, ezkerrean animaliek mugitutako tranbia ikus daitekeelarik "La Amistad" kasinoaren aurrean.

- G56599: Genaro Echeandia eta Colon pasealekuaren inguruak 1940. hamarkadan.

- G29083: "El Bidasoa" aldizkariak 1916 urtean Juaristi doktoreari Hendaian antolatutako omenaldian. Pio Baroja agertzen da argazkian.



G48948



G56599



G29083

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena
Ainara Berges

erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Publizitatea:

Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:

Andrea Gomez Arocena

Inprenta:

ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Argitaratzailea:

837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN:

1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943 04 20 52

Wegunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua:

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Etorkizunera begiratuko du 2019ko Euskararen Nazioarteko Egunak



Irungo Udaleko Euskara arloak hainbat ekimen antolatu ditu Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko. Anotlatutako ekintzak azaroaren 26an hasi eta abenduaren 27an bukatuko dira. “Ongi etorri etorkizunera!” lelopean prestatutako ekintzak izango dira eta Euskara Arloko ordezkariak azpimarratu dutenez ekintza gehienak doakoak izango dira.

Jon Ugarte Irungo Udaleko Euskara ordezkariak adierazi du, “abenduaren 3a Euskararen Nazioarteko Eguna bada ere, euskal hiztunok ongi asko dakigu ezin garela egun horretara mugatu”. Euskara ordezkariak azaldutakoaren arabera, euskara nazioarteko egunaren mugez haratago, egunero bizi da, euskaldunen aho edo belarrietan bizibizi zernahitarako prest beti.

“Abenduaren 3a Euskararen Nazioarteko Eguna bada ere, euskal hiztunok ongi asko dakigu ezin garela egun horretara mugatu”

Jon Ugarte, Irungo Udaleko Euskara ordezkaria

Abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Egunaren ospakizunen erdigunea Urdanibia Plazan kokatuko da. Bertan, goizeko 10:00etatik 19:00etara Euskaraldiaren inguruan Bitamine eta Irungo Udalak antolatutako ekimena izango da. Horrela, hiritarrak plazara hurbildu eta euskaren inguruko desioak eta bizipenak zabaltzera gonbidatzen dituzte. Euskal Herri osoko hiri eta herrietako plaza gehienetan abenduaren 3an egingo den ekimena izango da.

Arratsaldeko 18:00etan HIKA antzerki taldeak eta Oinkari dantza taldeak “Sagartu” ikuskizuna eskainiko dute. Eguraldi txarra egingo balu ekintza Amaia Kultur Zentroan egingo litzateke. Jarraian, 19:30etatik aurrera “Soi-nujolearen semea” filmaz disfrutatzeko aukera izango da Amaia Kultur Zentroan eta Fernando Bernués zuzendaria bertan egongo da filmaren inguruko galderak erantzuteko prest.

Hurrengo ekitaldiak

Euskararen Nazioarteko Eguna igaro ostean, abenduaren 4ean 17:00etan haur parkea antolatu dute egurrezko jostailuekin eta 17:30etatik aurrera Tor Magoaren ikuskizuna izango da San Juan plazan. Arratsaldeko 19:30etan “Magolaria” filma eskainiko da eta, jarraian, Mikel Urdangarin eta Oier Aranzabalen solasaldi musikatua egongo da. Abenduaren 5erako, berriz, bi pelikulen emanaldia antolatu da: 17:00etan familientzako “Pikachu detektibe” eta 19:30etan, berriz, helduentzako “Agur Etxebeste”.

Ekitaldiei amaiera emateko, abenduaren 27an, Amaia Kultur Zentroan eta Kultura arloko lankidetzarekin, 17:00etan Angel Alonso irundarrak zuzendutako “Elkano lehen mundu bira” filma eskainiko da. Pelikulaz disfrutatzeko sarrera doakoa izan arren, aurretik ohiko tokietan gonbidapenak eskuratzea beharrezkoa izango da.

Bidea zabaltzeko ekintzak

Euskararen Nazioarteko Egunaren barneko lehen ekintza azaroaren 26ko Bertso Jaialdia izan zen. Julio Soto, Nerea Elustondo, Ander Lizarralde eta Angel Mari Peñagari-kano bertsolariak Amaia Kultur Zentroko oholtzara igo ziren, Alaitz Rekondoren gidaritzapean. Hurrengo egunean, azaroaren 27an, “Muga deitzen da pausua” dokumentalaren emanaldia egin zen arratsaldeko 19:30etan Amaia Kultur Zentroan. Dokumentalak Elvira Zipitria andereñoaren bizitza eta Ikastolen sortzailearen bizipenak laburbiltzen ditu.

Euskaltzaindiak aurten 100 urte betetzen dituenaz, Euskara arloari egokia iruditu zitzaion azaroaren 28an erakundearentzako omenaldi xume bat antolatzea. Horretarako, “Euskaltzaindiak egunak eta lanak” dokumentala eskaini zen Oiasso Museoaan arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Ondoren, Miriam Urkia euskaltzaina eta Ibon Usarralde Euskaltzaindiko kudeatzailearekin solasaldia antolatu zen.

Azaroaren 30ean Irungo Udalak Jeiki Hadi talde irundarrarekin batera Kantujira saioa antolatu zuen Urdanibia Plazan. Arratsaldeko 17:00etan, bestalde, “20.000 legoa itsaspeko zaborretan” familientzako euskarako antzerkia ikusteko parada izan zuten sarrera ordaindu zuten ikusleek.

Abenduaren 1eko goizeko 8:30etan Txistularien Dianarekin hasi zen eguna. Eguerdian Meakako Adiskideak Muxikoak dantzatzeko elkartu ziren. Hortaz gain, Luis Mariano Elkarte Lirikoak Euskararen Nazioarteko Egunarekin bat egin du eta arratsaldeko 19:00etan Amaia Kultur Zentroan “Gure abestiak” emanaldia antolatu zuen ordainpeko emanaldian euskal abesti mitikoez disfrutatzeko.

Adierazpen Instituzionala

Gainera, Jon Ugarte Euskara arloko ordezkariak azaldu duenez, ekimenez gain, Irungo Udalak, Hizkuntza Politikako gaitan Herri Aginteak koordinatzeko Batzordeak (HAKOBAK) eta UEMAK laduntako adierazpen instituzionalera atxikitze asmoa du. Batzordea, Eusko Jaurraldiz, EUDEL, EAEko hiru Foru Aldundiak eta hiru hiriburuetako udalek osatzen dute. Adierazpenak indarra jartze du euskararen normalizazioan beharrezkoak diren bide eta modu berrietan.

Irungo historia ikuspuntu ezberdinetik kontatuta

Milaka dira hiri baten iragana eta historia kontatzeko moduak. Denboraren joanarekin, ordea, liburu edo dokumentu ofizialetan bildu ez diren gertakariak historiaren bazter galduetan ahaztu ohi dira zoritxarrez, idatzitako historiari ahoz transmitutako bizipenei baino sinesgarritasun gehiago eman izanaren ondorioz. Iraganeko gertakari ilun horietara argia ekartzeko asmoz, Bozak proiektuaren bitartez “Colon pasealekua: Acera de los reales y las pesetas” izeneko ikerketa bultzatu da, Irungo hirian XX. mendean klase sozialen bereizketa eta urte luzez isilarazitako emakumeen bizipenei ahotsa emateko.

Colon pasealekua Irungo bizitzaren erdigunea izan da bere sorreratik. Hortaz, hiriaren bilakaera historikoaren isla bikaina da, biztanleen ohitura eta bizimoduan izandako aldaketan adierazle garbia. Izan ere, Kale Nagusia, Eliza kalea eta Larretxipi kalearekin batera, Colon pasealekua hiria konektatzen zuen kale nagusian bihurtu zen landa eremuak nagusi ziren garaian, hiriko kale bakarrak ziren eta. Hiriaren zabalpenean tren geltokiaren ezarpena gertakari garrantzitsua izan zen, Colon pasealekua hiriko etorbide nagusian bihurtu baitzuen.

Historian atzera eginez, ordea, badira Colon pasealekuaren zatiketaz hitz egiten duten ahotsak. Hain zuzen ere, klase sozialen arabera gauzatu omen zen espaloien banaketa hori. Mertxe Tranchek azaldu duenez, Luis de Uranzuren “Un pueblo en la frontera” liburuan Colon pasealekuaren banaketa sinboliko hori aipatzen da. Hala ere, lehen liburu hori argitaratu ostean, Nicolas Aguirre bezalako autoreak zatiketa hori ezeztatzen saiatu dira. Luis de Uranzuren idatziaz gainera, garai hartan Irunen bizi izan ziren pertsonen testigantza zuzenek baieztatzen dute Colon pasealekuaren iraganean izandako banaketa klasista.

Ikerketa honen bitartez ondorioztatuenez, Zabaltza plazaren espaloia “de las pesetas” bezala ezagutzen zen eta garaiko burgesia eta klase aberetsa osatzen zuten hiritarrek mugitzen ziren bertatik. Izan ere, momentuko eraikin eder eta eleganteenak kaleko alde eguzkitsu horretan kokatzen ziren. Pareko espaloia, berriz, “De los reales” izenarekin identifikatzen zuten garaiko biztanleek, eremu txiro, hotz eta heze horretatik gainontzeko herri-tar xeheak mugitzen zirelako.

Kasinoa boterearen gotorleku

Bereizketa horren barnean, Irungo Kasinoaren erakuntza Colon pasealekuaren historia markatu zuen beste gertakari garrantzitsua bat izan zen. Hain zuzen ere, 1930. urtean eraiki zen Kasinoa, Gerra Zibila hasi baino urte batzuk lehenago. “De los reales” izeneko espaloian kokatuta egon arren, boterearen gotorleku bihurtu zen segituan Rosi Perezen testigantza zuzenak erakutsi duenez: “Alemaniatik etorritako jende boteretsua Kasinoan biltzen zela gogoratzen dut”. Hortaz gain, Kasinoan elkartzen zirenen ideologiaren erakusle izan daiteke ere, Mertxe Trancheren azalpenen arabera Errepublikaren garaian antolatzen ziren greba orokor guztietan eraikineko leihoak apurtzen ziren boterearekiko erresistentzia isaltzeko nahiarekin. Gainera, Kepa Ordoki Memoria Historikoa Bidasoan elkartek bildutako testigantzen arabera, Shole Agirre elkarteko kideak azladu du Gerra Zibila amaitu ostean Kasinoa hiriko nukleoa izaten jarraitu zuela hiriko burgesia Francoren lagunekin biltzen baitzen eraikin horren inguruan.

Emakumeen indar eta kemena

Era berean, ikerketak agerian utzi du Gerra Zibilean zehar eta gatazkaren amaieran emakume irundarrek paper garrantzitsua jokatu zutela. Gizon gehienak frontera bidali edo kontzentrazio esparruetan bilduta zeuden



G57692



G57701



G29063



G38626



G53157

ARGAZKIAK:

G57692: Genaro Etxeandia plaza eta Colon pasealekuaren hasiera 1930. hamarkadan, Gerra Zibilaren aurretik.

G57701: Colon Pasealekuan 1930. hamarkadan ateratako argazkia, ezkerrean Zabaltza plaza eta eskubian Kasinoa ikusten delarik.

G29063: Irun sutan, Hendaiatik ikusita 1936ko irailaren 4ean.

G38626: Colon pasealekua eta Zabaltza plaza 1936ko sutearen ostean.

G53157: Cipriano Larrañaga kalea 1936ko sutearen ostean, lehen planoan Colon pasealekua ageri delarik.

bitartean, emakumeak izan zirelako familiak aurrera ateratzeko hirira itzuli eta, okupatutako etxe eta negozioak saihestuz, bizitoki berriak bilatzeko indarrak atera zituztenak. Gainera, gerrak eragindako bizipen gogorrak alde batera utzi eta Errepublikaren amaierak ekarritako emakumeentzako eskubide eta askatasunen murrizketara egokitu behar izan ziren.

Zalantzen mamua

Ikerketa lan guztiaren ostean, “Colon pasealekua: Acera de los reales y las pesetas” azterketak ondorioztatu du

Irún hiriaren izaera klasistaren erakusle garbiak daudela, nahiz eta oraindik askok historiako gertakari lotsagarriak ezkutatzeko jarrerari eusten dioten. Hala ere, banaketa eta zatiketa horren berri ematen duten dokumentu ofizialak gutxi dira eta zuzeneko eta zeharkako testigantzen bitartez bildu da informazio gehiena. Era honetan, gaiaren inguruan sorutako zalantza eta kontraesanak ulertzen dira, idatzitako historiaren babesik gabe, denborak oroimenean eragindako nahasten menpe gelditzen baitira gertakariak.

Be Veggie Kantauri Itsasertzeko Lehen Jaialdi Beganoa Ficoban egingo da

Aurreko urteetan antolatutako Euskal Kostaldeko Eguberrietako azoka ordezkatu du



Be Veggie Kantauri Itsasertzeko Lehen Jaialdi Beganoa Ficoban egingo da abenduraren 6tik 8ra. Be Veggie jaialdiak %100ean barazki jatorrikoak diren elikagaiak eta pertsona beganoentzako produktu eta zerbitzu egokiak izango ditu ardatz. Kantauri isasertzeko lehen jaialdi beganoa izateaz gainera, Frantzia hegoaldean antolatzen den mota honetako lehen jaialdia izango da ere. Egun horietan zehar Ficobara hurbiltzen diren bisitarientzako sarrera doakoa izango da. Abenduaren 6 eta 7an, ostiral eta larunbatean, azoka 11:00etatik 20:00etara zabalik egongo da eta abenduaren 8an, igandean, 11:00etan hasi eta arratsaldeko 16:00etan itxiko dira azokako ateak.

Azkenaldian gizartean indarra hartzen ari den joera da beganismoa. Haien burua kontsumitzaile begano bezala definitzen duten pertsonen kontsumo mota berri bat bilatzen dute, animaliak esplotatu gabe osasunarentzako onuretan erreparatzen duena eta ingurumenaren jasangarritasuna sustatzea bilatzen duena.

Honela, Be Veggie jardunaldiak beganoak diren edo beganismoan interesa duten pertsonen zuzendutako azokaren barnean antolaturik egongo dira. Gainera, inguruan era honetako azoka bat antolatzen den lehen aldian denez, egun horietan zehar Ficobako erakustazoka bisitatzeko sarrera doakoa izango da bisitari gehiago erakartzeko asmoz.

Be Veggie jaialdiaren barnean bisitariak %100ean landare jatorrikoak diren elikagaiak topatzeaz gainera, pertsona beganoentzako egokiak diren produktu eta zerbitzuak ezagutzeko aukera izango dute ere. Hala nola, kosmetika naturala, ostalaritza eta turismo proposame-

nak eta aplikazioak edo bestelako zerbitzu teknologikoen inguruko nobedadeak erakutsiko dituzte azokako parte-hartzaileek. Hortaz gain, food-truck-ak, GKEak eta beste elkarte batzuen hitzaldi informatiboak, sukaldaritza beganoari buruzko tailerrak, show cooking-ak eta kontzertuak antolatuko dira Be Veggie jardunaldien barnean.

Ikasteko aukera

Produktuak eta zerbitzuak erosteko aukeraz gain, Be Veggie jaialdiak bizi-estilo beganoa sustatu eta horren inguruan kontzientziatzeko hitzaldi ugari antolatu ditu, beganismoaren inguruko elkarte eta ekintzaileak bilduz. Be Veggie jaialdiaren inguruan antolatutako hitzaldien bitartez beganismoaren kulturarekin loturiko gai zabalak landuko dira: beganismoaren inguruko liburuak edo sare sozial profila dauzkaten pertsonen esperientzia eta ezagutzen inguruko hitzaldiak, beganismoa familian, ekologia, dieta jarraibideak eta mahai inguruak. Hortaz, hizlari eta hitzaldi guztien inguruko informazio zehatzagoa jasotzeko, Be Veggie webgunean publikatutako egitaraua kontsultatu daiteke.

Sukaldean: Piztu sua!

Be Veggie jardunaldien barnean %100ean landare jatorriko sukaldaritza eta sukaldaritza beganoa izango dira protagonista nagusiak. Era honetan, "Sukaldean" atalaren barnean sukaldaritza tailerrak antolatuko dira era azkarrean tofua, seitana, ehundura duen soja, lekaleak eta fruitu lehorrez osatutako platerak sukaldatzea posible dela erakusteko.

Jakina, sukaldaritza ikasteaz gainera, Be Veggie azokara hurbilduko diren bisitarien janari proposamen ezberdinak dastatzeko aukera izango dute ere, hala nola, Libanoko janaria, kebabak, harategi beganoa, garagardoa,

gozokiak edo gaztak, besteak beste. Gainera, Maria Sku-maddik Vinyasa Flow klasearen bitartez, mugimendua eta arnasketa elkartzen dituen yoga dinamikoko ikastaroa eskainiko du.

Musika gustagarria

Elikadura eta bizi estilo beganoa lantzeaz gainera, musikaz gozatzeko tartea gorde da Be Veggie jardunaldien barnean. Honela, DJ Bara, DJ Honeyboy, Pet Fennec indie-rock proiektua eta Sara Zozaya musikariaren kontzertuak izango dira azokak irauten duen egunetan zehar.

Beganismoa: Goranzko joera

Latern aholkularitzak egindako 'The Green Revolution' azterlanaren datuek garbi adierazten dute beganismoarekiko goranzko interesa. Estatuan ia 4 milioi lagun kontsumitzaile "veggietzat" dute beraien burua, 8 emakumetatik 1ek esaten du "veggie" dela eta dagoeneko badira V-Labeldun diren 2.500 produktu, eta haragi gorriaren kontsumoak %35ean jaitsi da. Kontsumo mota horrekiko interesa gorantz doa etengabe eta are gehiago gure eremuko herrialdeetan.

Eguberrietako azokatik beganismoa

Be Veggie jardunaldiak aurreko urteetan Euskal Kostaldeko Eguberrietako azoka egiten zen datetan egingo da. Izan ere, data horietan Gipuzkoako hiri askotan Eguberrien inguruan antolatzen diren ekintzak ugaritu direnez, Ficoban beste motako jardunaldia antolatzea bilatzen zen. Hala ere, ez da ahaztu behar Euskal Kostaldeko Eguberrietako azoka antolatu den 13 urteetan zehar 1.000 erakusketarik parte hartu dutela eta 230.000 bisitari igaro direla bertatik. Aurrerantzean, Be Veggie ekimen berritzailea denez, datozen urteetan zehar azoka berriak garapen handia izatea espero da.



Coach-a eta era zoriontsuan produktiboa izateko prozesuetan akonpainamendua

- Coaching pertsonalizatua: ahalduntzea, determinazioa eta gogobetetasuna.
Zure ametsak betetzeko baimena emalazu zure buruari!
- Talde coaching-a: Kohesioa, zorientasuna eta produktibitatea.
Egin ezazu zure taldea zoriontsu era produktibo batean.
- Tailerrak eta konferentziak: garapen eta motibazioa lortzeko.



info@anaeguiazabal.es
www.anaeguiazabal.es



G40577



G40575



G26889



G40229

Ia konturatu gabe San Miguel auzoan kokatutako Leka Enea ikastetxeak 100 urteetako ibilbidea osatu du. 100 urte horietan zehar milaka ikasle, irakasle eta langile igaro dira zentrotik Leka Enearen historia osatzen lagundu dutenak. Mendeurrena ospatzeko ekintza ugari antolatu dira ikastetxe barnean zein ohiko errutinatik aldenduz. Gorabehera historikoz betetako urteen ostean, ekola etorkizuneko errealitate eta erronkei aurre egiteko prest dago.

2019ko abenduaren 3an betetzen da zehazki Leka Enea ikastetxearen sorreraren mendeurrena. Data garrantzitsua ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dira. Lehen ospakizunak joan den urteko ikasturtean zehar egin ziren ikastetxean bertan, zentroaren sarreran kokatutako erausketa, bazkaria edo ikasturte amaierako emanaldi bereziaren bitartez. Estitxu Rojas Leka Enea ikastetxeko idazkariak azaldu duenez, ikastetxetik atera eta hiritar guztiei hurbiltzeko asmoz, azaroan zehar beste zenbait ekintza antolatu ziren mendeurrenaren dataren gertutasuna aprobetxatuz. Horrela, erakusketa Geltoki kaleko lokalera lekualdatu zen eta bazkaria izan dira antolatutako azken ekitaldiak. Hortaz gain, 1976. urtetik eskolan publikatzen den aldizkariaren edizio berezia prestatu da, azken 100 urteen erreposoa egin eta paperean islatzeko.

100 urteetako historia Leka Enea izenaren atzean ezkutaturik



G40297

ARGAZKIAK:

G40577: Leka-enea eskola, atzean Ducoureau eraikina, Plaiaundiko eremua eta Hondarribia.

G40575: Leka-enea eskolaren barnealdea.

G26889: El Pinar eskola taldea 1984 urtean, "El Rancho" bezala ezaguna izan zena.

G40229: Leka-enea eskolako ikasleak 1990ko hamarkadan.

G40297: Haurrentzako jolasak Leka-enea ikastetxean 1990ko hamarkadan.

Joxemi Zabalo, Leka Enea ikastetxeko zuzendariak adierazi du, "oso polita izan da mendeurrenaren ospakizun ekitaldietan jendea nola elkartu den ikustea". Izan ere, ikasturte edo hamarkada ezberdinetan zehar Leka Eneako ikasgeletatik igaro diren belaunaldi ezberdinetako ikasle, irakasle eta zentroko langile ohiak biltzea lortu baita. Aloña Zabala Leka Eneako ikasketa buruak azaldu duenez, adin desberdinetako jende ezeguna erakusketako argazkien aurrean elkartu dela ikusi dute azken egunetan zehar, bakoitzaren esperientzia eta bizipenak partekatzeko. Joxemi Zabalo zuzendariak gaineratu duenez, eskolatik igarotako pertsonen oroitzapenak entzutea oso aberasgarria izan da haientzat, izan ere, Leka Enearen iragana hobeto ulertzeko aukera izan dutelako.

Ilusioaren indarra

100 urte igaro diren arren, ordea, eskolan hobetzeko grinak bizirik jarraitzen du zentroko langileen artean. Leka Eneako zuzendariak azaldu duenez, auzo izaera duen eskola bat izaten jarraitzeko asmoa dute, azuoko errelitatero egokitu eta erabiltzaileen beharrei erantzuteko gai izango dena. Honela, urteak igaro arren, familiei gertutasuna transmititzen jarraitu nahi dutela azpimarratu du Joxemi Zabalo, "eskola eta bertara ikastera datozen haurrak modu ilusionantean ikusten ditugu".

Etorkizunari begira, kalitatezko heziketa eskaintzeaz gainera, ikasle gehiago jaso ahal izateko eskolako instala-

kuntzak handitzeko beharra ikusten dutela azaldu du zuzendari taldeak. "Leka Enea XXI. mendearekin bat datozen ikastetxea izatea nahi dugu", adierazi du Joxemi Zabalo zuzendariak. Honela, 100 urteetan zehar egindako ibilbidea ahaztu gabe, Leka Enean etorkizunak ekarriko dituen erronkei aurre egiteko prest daude.

Errepaso historikoa

XX. mende hasieran hasi zen Leka Enea ikastetxea lanean. Garai hartatik gaur egun arte gauzak asko aldatu dira. Bide horretan eskolak hainbat erronkei aurre egitea lortu zuen, adibidez, 1936. urtean Irun suntsitu zuen sutearen ostean eskolak aurrera jarraitzea lortu zuen maistra bakar batekin. Beranduago, Pasiotarrei alokatutako lokalean sutea izan ondoren, ikasturtea hori amaitzea lortu zen.

Zoritxarreko gertakariak alde batera utzita, Leka Eneak hazten jarraitzeko lekua topatzeko gai izan zen. Historian atzera eginez Leka Eneako ikasgelak hainbat eraikin, pabilioi eta etxabeetan kokatu dira momentuko beharrei erantzuteko prest. Horrela, Geltoki kaleko eskola txikia, Leka Enea kaleko eraikina, Ducoureau jauregia, Pasiotarren lokala, Luis de Uranzu kaleko etxabeak eta "El Rancho" ikastetxearen historiaren parte izan dira.



EUSKO LABELA DUEN ABELGORRIA

TREBETASUNA ETA PROFESIONALITASUNA

BASQUE
LABEL
HARATEGIAK

ES

**BASQUE
LABEL
HARATEGIAK**

— %100 —
GURE BASERRITARREKIN
CON NUESTROS BASERRITARRAS



EUSKO LABEL PRODUKTUTAN
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA
ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO
EN PRODUCTOS CON EUSKO LABEL

ZURE BASQUE LABEL HARATEGIA

IRUN

MIKEL ZABAL HARATEGIA - San Pedro, 3 Bajo

hazi

Euskadi, auzolana
EUSKO JAURLARTZAR
GOBIERNO VASCO

Erronkak gaindituz aurrera doa Bidasoa



Argazkia: Fernando Álvarez

Denboraldi hasieran planteatutako erronkei erantzuteko gai dela erakutsi du Bidasoak lehen hilabete hauetan zehar. Izan ere, azaroaren 17an Finlandiako Cocks taldearen aurka jokaturako partiduan VELUX EHF Champions Leagueko hurrengo faserako sailkatzea lortu zuen talde irundarrak. Era honetan, Europako txapelketan emaitza onak eskuratzeaz gainera, Asobal ligaren barnean bere lekua topatu du Bidasoak eta aukari indartsuen kontra emaitza bikainak lortu ditu orain arte.

Jacobo Cuetera entrenatzaileak jokalaria azken 11 hilabeteetan taleak lortutako emaitza bikainengatik zoriontzeko tartea topatu zuen. Hain zuzen ere, 11 hilabete horietan zehar taldeak ez baitu partidurik galdu Logroñoren kontrako porrota iritsi arte, Asobal ligan Barçaren aurka jokaturakoak kenduta. Champions Leaguea ere indarrez beterik iritsi zen Bidasoa, 9 lehen partiduetan porrotik lortu ez baitzuen eta inoiz Europako txapelketan izandako emaitza onen errekor berria ezartzea lortu zuen orain arte errekor hori galdu gabeko 4 partiduetan zegoen eta. Modu honetan, Bidasoa denboraldi hasierako helburuei eusteko gai dela erakutsi du, aldi berean bi liga garrantzitsuetan jolasteak eragin dezakeen nekea ondo kudeatu eta txapelketetan aurrera egiteko gai dela erakutsiz.

Mazedonia iparraldean kokaturako Bitola hirian jokatu

zuen Bidasoa Irun taldeak EHF kopako multzoen faseko azken partidua. HC Eurofarm Rabotnik taldea garaile izan zen bi taldeen lehia nahiko berdindua izan zuen partiduen amaieran. Izan ere, Bidasoak partiduen azken minutuetan garaipena eskuratzeko aukera izan zuen arren, Mazedoniako jokalariek azken 2 puntuak bere egin zituzten markagailua itxi aurretik. Bitolako partidua 25-23 punturekin amaitu zen. 1.950 ikuslek gozatu zuten Mazedonia iparraldekoek eta talde irundarrak eskaintako ikuskizunaz, horien artean, Bidasoaren 20 jarraitzaile inguru.

Egun batzuk lehenago, azaroaren 27an, Bidasoak lehen porrota lortu zuen Logroñoko taldearen kontra jokaturako partiduen markagailua 30-24 punturekin amaitu ondoren. Jacobo Cueteraren mutilei Logroñoko jokalaria gailendu zitzaizkien ia partidu osoan zehar. Bidasoaren entrenatzailea partidua galtzeaz haratago, jokalaria bidasotarrak markagailuan puntu gehiago eskuratu eta aldea murrizteko gai ez izanaz damutu da, gertakari horrek egutegiko hurrengo itzorduetara begira izan dezakeen garrantziaz kezkatuta.

Hurrengo data esanguratsuak

Beharakada garai horren ostean, emaitza onen bidera itzultzeko aukera izango du Bidasoa Irun taldeak bere hurrengo hitzorduetan. Bidasoak Asobal ligako 3 partiduetan dena eman beharko du datozen egunetan zehar. Lehen erronka abenduaren 4ean etxean jokatu dute Jacobo Cueteraren mutilek Frigoríficos del Morrazo

Cangas taldearen aurka. Neguko geldialdiaren ostean, urtarrilaren 17an HBC Nantes izango da talde bidasotarraren lehen etsaia. VELUX EHF Champions Leagueko partiduei, berriz, otsailaren amaieran ekingo zaie berriro. Asobal ligari daokionez, Abanca Ademar León taldearen kontra indarrak neurtuko ditu Bidasoak Artalekun otsailaren 3an.

2020-2021 denboraldirako lehen aldaketak

Gertuko erronkei aurre egiteaz gainera, Bidasoa Kirol Klubeko zuzendaritza 2020-2021 denboraldirako lehen mugimenduak egiten hasi da. Horrela, Julen Aginagalde jokalaria irundarraren itzulera izan da orain arte jarraitzaile horien artean poztasun handiena eragin duen albiste. Espainiako hainbat eskubaloi taldeetatik eta azken urteetan zehar Poloniako KS Kielce taldea atzean utzi eta etxera itzultzeko hasierako akordioa sinatu du klub irundarrak Aginagalderekin. Duela 3 urte Europako Txapeldun titulua lortu zuen KS Kielce taldearekin.

Berri onen artean, ordea, Bidasoa klubeko zuzendaritzak Esteban Salinasen kontratua berrituko ez duela jakitera eman du. Salinas 2018-2019 denboraldian iritsi zen Irunera. Asier Zubiria Bidasoa klubeko zuzendaritza batzordeko kideak azaldu zuenez, "ez da erraza horrelako erabakiak hartzea eta are gutxiago Esteban bezalako jokalaria maitatu batekin".



bideosare

Bideoak zure erara!



- > Ikus-entzunezko proiektuak
- > Bideo grabaketa eta edizioa
- > Multimedia

bideosare.com



Gabonetako Krosaren VI. edizioak Irungo kaleak zeharkatuko ditu abenduaren 14ean



Gabonetako Krosaren VI. edizioak Irun erdiguneko kaleak zeharkatuko ditu abenduaren 14ean. Aurreko edizioetako 5 Km-tako ibilbidea errepikatuko da, Kasino ingurutik irten eta Luis Marianon kokatutako helmugara iritsiko dira parte-hartzaileak. Lasterketa giroan elkartasunerako tartea izango da aurten ere, dortsalen salmentatik lortutako euro bakoitza Aspargi elkartearen lana laguntzeko erabiliko baita. Bidasoa Kirol Elkarteak izango da VI. Gabonetako Krosako aitabitxia. Gainera, arratsalde hasieran Gabonetako Krosa Txikia antolatuko da.

Gabonetako Krosaren bitartez Super Amara BAT taldeak urtea kirola praktikatzeko aukera eskaintzen du. Gabonetako Krosa urteko azkenaurreko larunbatean antolatu ohi den arren, aurten proba astebete aurreratu da Santo Tomas egunarekin elkartzea saihesteko. Arratsaldeko 16:45etan Zabaltza plaza paretik abiatu eta hiri erdiguneko kaleak zeharkatu ostean, parte hartzaileak Luis Mariano inguruan kokatutako helmugara iritsiko dira. Ibon Muñozek Super Amara BATEko gerente eta zuzendari-teknikoak adierazi du, "Gabonetak Krosa mota guztietako korrikalariarentzat pentsatutako proba da".

Probaren egunera arte lasterketan izena emateko aukera egongo da. Abenduaren 1etik aurrera behin erabiltzeko txipa daraman dortsalak 13 eurotako prezioa izango du eta lasterketaren egunean bertan eskuratuz gero 18 euro. Kirolprobak webgunean izena emateko aukeraz

gain, Irungo Leire Sport eta Hondarribiko Papycop dendetan izen-emateak egin ahalko dira.

Izena ematerako orduan beste aukera bat aitaibitxi edo amabitxi dortsala eskuratzea da. Hau da, aurreko urteetan Gabonetako Krosan parte hartu ez duen lagun batekin etortzen diren kirolari beteranoiei 5 euro itzuliko zaizkie. Bestetik, taldean parte hartzeko aukera eskaintzen du antolakuntzak. Horretarako, lasterketan koadrila moduan izena ematea beharrezkoa izango da, 4 pertsonen osatutako talde maskulino, femenino edo mistoetan. Gabonetako Krosaren VI. edizioan sailkatzen diren lehen 10 parte hartzaile maskulino eta femeninoentzako zein lehen 3 koadrilentzako sari eta garaikurrak banatzeaz gainera, bestelako sariak zozketatuko dira probako parte-hartzaileen artean. Hortaz gain, korrikalariak Zabaltza plaza eta Luis Mariano inguruko tarbenetako baten pintxo banaz gozatzeko txartela jasoko dute.

Dortsalak Super Amara supermerkatuan jaso ahalko dira abenduaren 12 eta 13an arratsaldeko 17:00etatik 21:00etara eta abenduaren 14eko goizean 9:30etatik 12:00etara. Bestela, dortsalak irteeran jasotzeko aukera egongo da ere. Aurreko urteetan egin bezala, Artaleku kiroldegiko dutxak eta aldagelak erabiltzeko aukera izango dute korrikalariak. Kontsigna, berriz, Santander banketxearen alboan kokatuko da.

ASPARGI elkartearen esker ona
Gabonetako Krosaren VI. edizioako dortsalen salmentatik

lortutako euro solidario bakoitza ASPARGI elkarteak jasoko du dohaintzan. Gipuzkoako Parkinson Elkarteak 20 urte inguru daramatza parkinson gaixotasuna paraitzen duten pertsona eta horien familiei babes eskaintzen. Beningo Valin ASPARGI elkartearen ordezkariak adierazi du, "ASPARGI elkartearen jardura zabaltzen duten ekintza guztiak oso lagungarriak dira guretzat".

Txikientzako Gabonetako Krosa

Etxe txikiek lasterketan parte hartzeko aukera izango dute 15:30etatik aurrera Luis Mariano inguruan egongo den Gabonetako Krosa Txikian. Izen-ematea doakoa izango da izaera lehiakorrik gabeko proba horretan. Urte batetik gorako eta 13 urte arteko haurren parte hartzea onartzen da eta txikiak gurasoekin batera parte hartzeko aukera izango dute. Bost minutuko aldearekin banatutako eta parte hartzaileen adinaren arabera antolatutako 12 txandetan banatuko dira irteerak, adin bakoitzera egokitutako distantziak.

Gainera, irteera ordua baino 15 minutu lehenago haurrek beroketarako prestatutako eremutik igaro beharko da BAT taldeko monitoreekin batera luzaketa ariketak egiteko. Ibon Muñozek urtero errepikatzen den zalantza argitu du, hau da, 14 urtetik beherako haurrei Gabonetako Krosa Txikian parte hartzea gomendatzen zaiela lasterketa nagusian parte hartu ordez. Izan ere, BATEko antolatzaileen arabera proba horretako denbora eta distantziak egokiagoak dira adin tarte horietarako.

ZKO

D


Etorkizuna orain

R

Gipuzkoa
etorkizuna da.
Iritsi den
etorkizuna.

I

E



GIPUZKOA
ETORKIZUNA
ORAIN



Diabetesaren Nazioarteko Eguna egingo du Caser Residencialek

Abenduan zehar hainbat ekintzekin osatuko da Caser Residencial egoitzetako egitaraua



Azaroaren 14ean ospatzen da Diabetesaren Nazioarteko Eguna. 1991. urtean erabaki zen gaixotasun honi nazioarte mailan egun bat eskaintzea, mundu mailan diabetesaren inguruko kontzientzia-zioa handitzeko helburuarekin. Honela, data seinalatu honen inguruan, Anakako Caser Residencial egoitzak diabetesaren inguruko hitzaldia antolatu du abenduaren 3an.

Diabetesaren Nazioarteko Eguna dela eta, Anakako Caser Residencial egoitzan diabetesaren inguruko hitzaldia egingo da abenduaren 3an arratsaldeko 17:30etan. Arantxa Telleria Osakidetzako Paziente Bizia programako monitorea eta Gipuzkoako Diabetikoen Elkarteak idazkariak eskeinitako hitzaldia izango da. Hitzaldian Diabetes gaixotasunaren ezaugarri nagusiak errepasatuko dira.

Hortaz gain, adineko pertsonen kasuan gaixotasun honek erakutsi ohi dituen sintomen inguruan hitz egingo du Te-

lleriak, diabetesaren pairatzen duten pazienteek jarraitu beharreko jarraibide eta ohitura osasungarrietan sakontzeaz gainera. Caser egoitzako egoiliarrez gainera, zentroko langileak eta senideak hitzaldia entzuntera gonbidaturik daude. Gainera, hitzaldiaren amaieran, gluzemia neurketak egingo dira eta pintxo osasungarriak banatuko dira bertaratutako guztien artean.

Diabetesa bezalako gaixotasunak hobetu ulertu eta kontrolatzeko helburuarekin, Caser Residencial egoitzetan hitzaldiak eta bestelako jarduera informatiboak antolatzen dira. Izan ere, Caser Anakako egoitzan 30 egoiliar diabetiko kontrolaturik dauzkate. Kasuaren arabera gaixotasuna metodo ezberdinen bitartez tratatzen da: tratamendu bidez, intsulina bidez edo aurretiaz antolatutako dieta orekatu baten bitartez.

Gipuzkoako Diabetikoen Elkarteak

Gipuzkoako Diabetikoen Elkarteak 1986. urteko uztailaren 22an sortu zen hainbat helbururekin. Batetik, biztanleria diabetikoaren gorakada azkarra dela eta, izan ere,

biztanleriaren %6ak pairatzen du gaixotasun hau eta diabetikoen %25a, zehazki, 55 urtetik gorako pertsonen osatzen dute. Bestetik, diabetikoek beharrekoza duten asistentzia eskaintzeko helburuaz gainera, parte hartze soziala eta hezkuntza fisikoko ekintzak aurrera eramateko helburua du elkarteak ere. Gainera, elkarteak bi helburu nagusi dauzka gaixoekin harreman zuzen mantendu eta pertsona diabetikoak baliogabetzeko arriskua saihesteko: pazienteen bizi kalitatea hobetzea eta gaixoen integrazio osoa posible egitea.

Abenduko ekintza anitzak

Aurretik aipatutako hitzaldiaz gainera, abendua ekintza eta jardunaldiz gainezka iritsiko da Caser Residencial egoitzetara. Alde batetik, Anakako Caser Residencial egoitzarentzat urteko azken hilabetea berezia izango da, egoitzak bere 17. urteurrena ospatuko duelako. Hortaz gain, abenduan zehar Santo Tomas eta Gabonen inguruan hainbat ekintza antolatuko dira, 2019 urtea behar bezala agurtu eta 2020ari merezitako ongi etorria egiteko.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



CASER ANAKA



GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169



CASER BETHARRAM



Denborapasak

BERTSO BERRIAK, INPOSIZIOEI JARRIAK

Doinua: "Komeni zaigun ixtoria bat"
Egilea: Aitor Errazkin Vicente

1)
 Euskal Herrian barrena mezu gaitza hedatzen ari da euskararen "ez-dakit-nolako" inposatzeen harira gezurrik esan ote liteke begietara begira? Kontuz, askotan esanez gero sinetsi egiten dira.

2)
 Bi estaturen mendean gaude gauzak garbi esatera derrigortuak gaztelania ta frantsesa jakitera inork al du bi horiek baztertu ta saihesteko aukera? Inposatu zer egiten zaigun, hortik kontuak atera!

3)
 Eta hargatik aldarrikatzen, sustatzen dugu euskara: debekatua, ofizialtasun kontuan dena eza da. Nafarroa zein iparraldera so jartzen baldin bagara, inposatzen den hizkuntza baten itxurarik al dauka ba?

4)
 Aurrerakoiak izan gintezke atzerakoen fedean? "Ezin da gogoz kontra ipini inor hizkuntzen mendean!" Euskaldunari, ordea, mihia moztu ohi zaio gurean erdaldunaren "askatasuna" hasten den une berean.

5)
 Eta lanpostu publikoena? Nor ez da izan testigu? "Mediku ona ala euskalduna?" Nahita ere ezin isildu... Dudarik gabe biak zor dira eta orok merezi du erren gabiltza gauden herriko hizkuntza ez badakigu.

6)
 Euskara dela eta ez dela, prest nengoke onartzeko inposizio bat dagoela ez dakien bakoitzeko. Hortik aurrera euskal herritar guztiok gaude antzeko denok baitugu gure ardura herria euskalduntzeko.

7)
 Beraz, euskaraz egin besterik ez da, etxean, azokan... Ez dakienak esango digu, moldatu gara askotan! Hura geratu bedi nabarmen inortxo geratzekotan gu ez baikara ezer hizkuntza hartu ezean ahotan.

8)
 Eta egia bada euskara nahi ez luketela hilik (bai baita hori ukatzen duen politikari abilik) horrelakoen aurrean ezin geratuko da isilik "Civismo" hitza jarri zuena faroletatik zintzilik.

Negua

D	I	A	O	E	C	O	D	U	R	U	N	I
S	B	A	E	S	K	U	L	A	R	R	U	B
L	V	X	H	A	O	O	P	E	L	O	K	A
E	N	E	R	T	N	U	H	L	R	R	A	T
B	T	N	T	X	I	A	A	U	L	D	E	A
A	N	D	R	I	D	B	E	R	N	I	Q	U
R	S	L	N	M	A	O	E	A	D	A	K	U
U	D	L	N	I	E	M	F	R	L	F	A	M
O	D	N	D	N	R	U	U	H	O	T	Z	A
L	E	R	A	I	B	J	B	U	K	K	T	E
A	E	T	O	A	E	B	U	B	A	T	I	A
C	E	B	O	M	M	R	A	E	X	T	L	R
S	V	U	B	D	O	L	D	E	I	B	N	M

Elur, bufanda, lera, eskularru, beroki, hotza, tximinia

		6	9		2			8
7					8			
8	9	5	7	3	4			
		8		4	3			9
						8		2
		2	8	9	5	7		
	4		5					6
5					9			
				6		2		

EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK



Meaka auzoa, 9 - 20305 IRUN
 Tel.: 943 841 964

FELIX MANSO IBARLA JATETXEA

info@felixmanso.com
 www.felixmanso.com



Eneritz Furyak, abeslaria:

“Udaberria igaro baino lehen disko berria eskuetan edukiko dudala prentsatu nahi dut”



Disko berria kaleratzeko prozesua martxan jarri du Eneritz Dueso musikariak datorren udaberrira begira. Bitarte horretan, joan den urtean argitaratutako Zaldi Zuria Maskara singel-eko bi abestiekin lanean ibilbi da eta Zaldi Zuria bideoklipa atera berri du. Esperientzia lagun, autoekoizpenaren ideiarri eusten dio oraindik Eneritz Furyak proiektuak.

Zer adierazi nahi izan duzu zaldi zuria- ren irudiaren bitartez?

Berez, singelaren izena Zaldi Zuria Maskara zen eta elkarrekin doazen bi kantuz osaturik dago. Zaldi zuria unikornio baten antzera irudikatzen dut nik, baina, amodio platonikoarekin edo obsesioekin lotu dezakegu, ironiaz osatutako kantua baita. Maskara kantuaekin, aldiz, aurretik aipatutako ideak ezabatu, maskara aurpegitik kendu eta modu naturalean bitzitzea eskatzen duten sentimenduak adierazi nahi izan ditut. Maskararen bideoklipa nahiko esperimentalak izan zen. Zaldi Zuria, berriaz, mamu baten bitartez irudikatu dut bideoklipetan.

Noiz argitaratu nahiko zenuke zure hurrengo diskoa?

Hurrengo diskoa kaleratzeko orduan ez dut uste ohiko prozedura jarraituko dudarik. Hau da, abeslariak normalean kantu bat edo bi kantuz osatutako single-a ateratzen dute, ondoren, horiek diskoan txeratzeko. Nire hurrengo diskoan, aldiz, ez dira aurretik aipatutako bi kantuak sartuko. Hurrengo diskoa prestatzeko lanean hasi naiz eta zentzu batean bi kantu horiekin lotura izango duen arren, soinua aldatzen ahalegindu naiz. Abesti berrietan ukitu akustikoa baztertu eta giro-sinuetara hurbiltzea saiatu naiz. Udaberria igaro baino lehen disko berria eskuetan edukiko dudala prentsatu nahi dut.

Barkalari moduan erosoago sentitzen zara musikan?

Bai, egia esan bai. Alde batetik, hasierako garaiekin alderatuta orain erosoago nago barkalari moduan. Kantuak konposatzen hasi nintzenean beldur handia nion eszenatokira bakarrik igotzeari eta, horregatik, Kasernarat taldea sortu nuen lagun batzuekin. Bakarka hasi nintzenetik esperientzia gehiago daukat zentzu horretan, baina, musika beste modu batean ulertzeko aukera eman dit.

Abestiak sortzeaz gainera, nola moldatzen zara zu bakarrik gainontzeko zereginetan?

Tarte batean bakarrik aritzeko ideiarri eutsiko diodala uste dut eta, taldea sortuko banu, ez dut uste Eneritz Furyak proiektuaren barnean izango zenik. Hasieran baliabide faltak bultzatu ninduen DIY filosofia jarraitzera, baina, orain nire lan egiteko moduan bihurtu da. Lan egiteko modu honek, askatasunaz gainera, jende berria ezagutzeko aukera eman dit.

Zeintzuk dira musikan daukazun erreferenteak?

Hamaika esan nitzake, baina, musikalki oso urruti gauden arren, Labasu rapera asko miresten dut. Lagun handia da niretzat eta bere lan egiteko era asko gustatzen zait. Musikalki, berriz, Mukuru kolektiboko Peru Galbete, Hatxe, Paxkal Irigoyen, Kaskezur eta bezalakoak miresten ditut benetako musika egiten dutela uste baitut, merkatuko eskaerak jarraitu gabe.

Aurrerantzean euskarazko musika sortzen jarraituko duzula uste duzu?

Aho biko labana izan daiteke euskarazko musikarekin lan egitea. Izan ere, lekuaren arabera aurreiritzi batzuk sortu daitezke-

elako zurekiko. Gainera, belarriaren kontua garrantzitsua iruditzen zait, adibidez, ingelesezko musikara ohituago egon gaitzkeelako. Beste aldetik, jendea asko harritzen da aurreiritziak baztertzea lortzen duenean. Beti bezala, ezberdina izateak bere alde ona eta txarra ditu. Euskaraz kantatzea nire hautua izan da naturala zaidalako, besterik gabe.

Hitzordu garrantzitsurik duzu datozen aste edo hilabeteetan zehar?

Abenduaren 6an Pikara magazinaren 10. urteurrena ospatzeko, beraietzako propio sortutako garagardoaren aurkezpen ekitaldian joko dut. Hortaz gain, urtarrila ondo hasteko asmoa dut eta kontzertu guztiak loturik egon ez arren, Araba eta Lapurdi inguruan ibiliko naizela aurreratu dezaket.

Nola ikusi nahiko zenuke Eneritz Furyak proiektua etorkizunean?

Etorkizun hurbilari begira bizitzea nahiago dut eta udaberrian disko berria kaleratzea lortu nahiko nuke. Hortik aurrera, jotzen eta hazten jarraitzea dira ni helburuak. Etorri beharrekoa lehenago edo beranduago etorriko dela pentsatzen dut.



- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Web gunean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Etorri eta informatu zaitez EHU-ri buruz!

Eguna: 2019ko abenduaren 19an.

Ordua: 18:30etan.

Lekua: Amaia Kultur Zentroan.

Ekitaldia elebiduna izango da eta bertaratzeko ez da beharrezkoa izango aurretik izena ematea.

Ekitaldia Batxirlego edo Goi Mailako Heziketa Zentroetako ikasle, 24 edo 25 urtetik gorako probak egindo dituzten eta lan arloko esperientzia egiaztatuta duten sarbideko erabiltzaileei eta orientazioan zein irakaskuntzan diharduten eta EHUri buruzko informazio orokorra jaso nahi dutenei zuzenduta dago.

oman ta zabal zazu



UPV EHU

Zure laguntza behar dugu laten bilketan!

Gaztelekuan 200 lata birziklatu eta berrerrabiliz mural bat sortuko dugu. Denen artean diseinua erabaki eta laten azpikaldea margotuz gure artelana sortuko

dugu, honela, mural kolektibo izugarria eginez!

Murala abenduaren 27an egingo da, Martindozenea Gaztelekuan arratsaldeko 15:00etatik aurrera antolatuko den ekintza batean.

Hauek dira laten bilketarako hirian zehar antolatu diren puntuak: Irungo Gaztelekua, CBA Udal Liburutegia, Gazte Informazio Bulegoa, Lapitzeko "La Gruta" taberna, Landetxako "Auzoko Taberna", Landetxako Auzo Elkarte eta Irungo Gazteria Saila.



Asun Casasola ipuin labur lehiaketa

Berdintasunaren aldeko jendarte batzatu eta genero indarkeria baztertzeko helburuarekin antolatu da V. Asun Casasola ipuin labur lehiaketa. Lehiaketara aurkeztuko diren ipuinek "Ez zaude bakarrik" gaian oinarriturik egongo dira.

- Parte hartzaileak bi kategorietan banatuko dira: 10 eta 16 urte artekoak eta 16 urtetik gorakoak.

- Lanak aurkezteko epea: 2020ko otsailak 9.

- Euskaraz edo gaztelaniaz idatzitako ipuinak onartuko dira lehiaketan.

Erakusketa "Indiana Jones: Altxor galduaren bila"


"Indiana Jones. Altxor galduaren bila" erakusketa fikziozko pertsonai horri egiten zaion omenaldia da, asko lagundu baitu arkeologia jendarteratzen. Erakusketa honetan hangar bat azaltzen da, eta bertan gordeta daude Jones doktoreak berreskuratutako erlikia guztiak. Indiana Jonesen abenturen lau filmetan: "Kutxa galduaren bila", "Tenplu madarikatua", "Azken gurutzada" eta "Kristalezko burezurraren erresuma" agertutako objektuen erreplikak aurkituko ditugu bertan, bai eta 30., 40. eta 50. urteetako hainbat objektu ere, filman horiek girotzeko erabili zirenak.

Non: Oiasso Museoa.

Data: Urtarrilaren 12ra arte.

Ordutegia: Astearte, ostegunetan eta igandeetan 10:00etatik 14:00etara. Ostiral eta larunbatetan 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

Sarrera: Doakoa.



Folder

Paper-dendrik merkeena
ZIURTATUTA

Kolon ibilbidea, 2
(atzeko aldea)
www.kopiar.net
kopiar@kopiar.net
943 63 93 01

Abenduak

3

Hitzaldia: "Bakardatea arrisku faktorea"

Zer: José Félix Martí eta Blanca Morera Pérez doktoreen hitzaldia.

Non: Palmera Montero Gunean.

Ordua: 18:30etan.

Sarrera: Librea.

5

Antzerkia: "Bakean dagoena bakean utzi"

Zer: Gaurko Andreak Berdintasunaren Alde elkarrekin antolatutako ekintza.

Non: Amaia Kultur Zentroko Hitzaldi Aretoan.

Ordua: 19:30etan.

Sarrera: Librea.

7

Yllama antzerkia: "The Opera Locos"

Zer: 2019 urtean Arte Eszenikoen Musika-ikus-kizun onenaren Max Saria jasotako ikuskitza.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 20:00etan.

Sarrerak: Sarrera orokorra 14,60 euro. Langabeek, 14 urtetik beherakoek eta Gazte Txartelaren onuradunek 9,40 euro.

Sarreraren salmenta: Internen bidez, Irungo Turismo Bulegoan edo antzerkiaren egunean antzokiko leihatilan.



Denborapasen emaitzak

P	I	A	O	E	C	O	D	U	R	U	N	I
S	D	A	E	S	K	U	L	A	R	R	U	B
L	V	X	F	A	O	F	E	L	D	X	A	
E	N	E	R	T	N	U	H	I	R	R	A	T
B	T	N	T	X	J	A	A	U	L	D	E	A
A	N	D	R	I	D	E	R	N	I	Q	E	
R	S	L	M	H	A	O	E	A	O	A	K	U
U	D	L	N	E	M	P	L	P	A	M		
O	D	A	D	N	R	L	U	H	I	T	Z	A
L	E	N	I	B	O	B	U	K	T	E		
A	P	T	O	A	P	R	I	B	A	T	A	
C	E	B	O	H	R	A	E	X	T	L	R	
S	V	U	B	D	O	L	D	E	I	E	N	M

1	3	6	8	5	2	4	7	8
7	2	4	6	1	0	5	3	9
8	9	5	7	3	4	6	2	1
6	7	8	2	4	3	1	9	5
3	8	9	1	7	8	8	4	2
4	1	2	0	9	6	7	0	3
2	4	3	5	8	7	9	1	6
5	0	1	4	2	0	3	0	7
9	8	7	3	6	1	2	8	4

9

Maker tailerra: Gabonetako apaingarriak

Zer: Gabonetako apaingarriak sortzeko tailerra 16 urtetik gorako pertsonentzat.

Non: Irun Factoryn (Jose Antonio Loidi Bizcarrondo kaleko 8. zenbakian).

Ordua: 17:00etatik 19:00etara.

Prezioa: Doakoa.

13

Kontzertua: Gisela eta Irun Hiria Musika Banda

Zer: Irun Hiria Musika Bandak Gisela abeslariarekin batera Disney pelikuletako abesti ezagunak eskeiniko dituzte kontzertuan.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera orokorra: 4,30 euro.

Sarreraren salmenta: Internet bidez, Irungo Turismo Bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

13tik aurrera

2019ko Jaiotzen eta Olentzeroen Erakusketa

Zer: Irungo Udalak antolatutako Jaiotzen eta Olentzeroen lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa.

Non: Amaia Kultur Zentroko Erakusketa Aretoan.

Ordutegia: Asteartetik larunbatera 18:00etatik 21:00etara eta igande eta jaiegunak 11:30etatik 13:30etara.

Sarrera: Librea.

Oharra: Erakusketa astelehenean, abenduaren 24, 25 eta 31ean eta urtarrilaren 1ean itxita egongo da.

love

SARRERA
DOAN
ENTRADA
GRATIS

1 edizioa edición

FESTIVAL be veggie JAIALDIA

6 • 7 • 8

ABENDUA / DICIEMBRE
2019. FICOBA, IRUN

be veggie!

GERTURATU ETA GOZATU

Elikadura, kosmetika,
moda eta gehiago!
Guztiak animalien
esplotaziorik
gabekoak,
ingurunearekiko
jasangarriak eta
osasuntsuak.

ACÉRCATE Y DISFRUTA

Alimentación,
cosmética, moda y
¡mucho más! Todo
libre de explotación
animal, respetuoso
con el medio ambiente
y beneficioso para la
salud.

www.beveggie.eus



#Beveggie2019

ANTOLATZAILEA
ORGANIZA



BABESLEA
PATROCINA



be veggie-ra,
zatoz topoan!

Parade
Irun-Ficoba
Geltokia

A be veggie,
¡Ven en topo!


euskotren

